


EUSKARA NAFARROAN. Nafarroako Gobernuak ingelesaren eta frantsesaren parean utzi nahi du euskara Nafarroako Unibertsitate Publikoan; derrigorrezko ikasgaiak gaztelania hutsez eskainiko dituela baieztatu du Pedro Pegenaute zuzendari nagusiak.

Gobernuak frantsesaren eta ingelesaren parean jarri nahi du euskara NUPen

Pegenautek baieztatu du unibertsitatean ez dela euskarazko ikasketarik eskainiko, Irakasletza salbu, eta soilik hautazko ikasgai libreak ikasi ahal izango dira



JOXE LACALLE

Pedro Pegenaute, Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia.

Alberto Barandiaran | IRUÑEA

Nafarroako Gobernuak atzerriko hizkuntzen parera jarri nahi du euskara unibertsitatean, prestatzen ari den lege proiektuaren bidez. Horretarako, ikasketen oinarriak diren adarreko ikasgaiak eta derrigorrezkoak gaztelaniaz bakarrik eskainiko ditu Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP), eta euskarazko eskaintza, ingelesarena eta frantsesarena bezala, hautazko ikasgai libreetara mugatuko.

Gobernuak, horrela, NUPek berak iaz ezetsi zuen proiektua berreskuratuko du. Orduan, hautazko ikasgai libreen bidez euskarazko eskaintza egiteko proposamenak NUPeko bederatzita departamentu, bi ikasketa zentro eta 160 irakasleren errefusa jaso zuen, eta Hizkuntza Normalizaziorako Batzordeak beste plan bat hitzartu zuen azkenean. Plan hori lozorroan dago oraindik, NUPeko errektore Jose Antonio Perez Pradosen kaxoian.

NUPeko ikasketa guztiak, gaztelania hutsean

Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari

nagusi Pedro Pegenautek atzo baieztatu zuenez, Gobernuak oso aurreratua du lege proiektua, eta, funtsean, ikasketa guztiak gaztelaniaz eskaintzeko nahia dago atzean. Euskaraz, beraz, soilik ikasgai orokorretan, irekietan, eta gutxien espezializatuen bidez ikasi ahaliko da NUPen. «Ez dugu unibertsitate elebiduna nahi», adierazi zuen zuzendari nagusiak, «baina unibertsitate ele anitzekoa».

Pegenautek adierazi zuenez, soilik Irakasletza salbatuko da —egun hori da NUPen euskaraz egin daitekeen karrera bakarra—, eta euskarazko eskaintza dagoen eskaeraren arabera izango da, bere hitzetan. «Horrek ez du esan nahi, hala ere, adarrekoak derrigor kenduko direnik, zenbait ikasgai euskaraz, edo ingelesez edo frantsesez eskaini ahaliko baitira». Egun adarreko sei ikasgai eskaintzen ditu NUPek euskaraz, eta bost ikasgai hautazko libre izenekoak.

Ikasketen muina osatzen duten adarreko eta derrigorrezko ikasgaiak euskaraz ez eskaintzeko ideia iazko otsailean jarri zuen mahai gainean NUPen osatutako laugarren Hizkuntza Normalkuntzarako Batzordeak, egindako zirriborro baten bidez: «Nahikariaren eta posiblearen arteko oreka», egitasmoaren egileek berek izendatu zuten.

HIZKUNTZA POLITIKA

On Kixote, euskararen inguruko erakusketaren ardatza

Marco Polo eta On Kixote izango dira atzotik urrira bitarte Nafarroa osoan zehar ibiliko den *Euskara eta Kultura Nafarroan* izeneko erakusketaren ardatzak. Erakusketa ia bost milioi pezeta kosta izan da, eta, Pedro Pegenautek atzoko aurkezpenan adierazi zuenez, erakusketaren bidez, «euskarak merezi duen begirunea ahaztu gabe», eskaintza «erakargarria» egin nahi izan da, «Nafarroan kultura sendotzeko». Marco Poloren eta On Kixoteren irudien inguruan zuzendari nagusiak adierazi zuen «kontzeptu berriak» sartu nahi direla «kulturen gaiari euskara eta gaztelania lotzeko». «Izen handia duten pertsonaien bidez, euskara jarri nahi dugu kultur maila gorenetan, eta jende gehiago erakarri euskara ezagut dezan», esan zuen.